

**Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide
Informatikoaren Kodea**

Prestakuntza eta mantentze
arduraduna: Segurtasun Saila

Berrikuspena: 08

Indarrean jarri den eguna: 2011-05-02

1. XEDEA	2. IRISMENA
<p>Barne arau honen helburua segurtasun politika bat ezartzea da, Lantiken erakunde hornitzaile guztiei Lantikek dauzkan azpiegitura eta informatikako baliabide guztiak behar bezala erabiltzen laguntzeko.</p>	<p>Lantiken erakunde hornitzaileek erabiltzen dituzten azpiegiturari eta informatikako baliabideei aplikatu behar zaie, besteak beste, tresna informatikoen erabilera, beste sare batzuetan sartzea (adibidez: Internet, intranet, sare korporatiboa), zerbitzu korporatiboen erabilera (posta elektronikoa adibidez), aplikazioak eskuratzea etab ahalbideratzen dituzten ekipo informatikoei, programei, zerbitzariei, sareei, kokapenei eta abar.</p>

AURKIBIDEA

1.	XEDEA	1
2.	IRISMENA	1
3.	SARRERA	2
4.	APLIKAZIO EREMUA	3
5.	ZIOAK ETA HELBURUAK	4
6.	BALIABIDE INFORMATIKOEN ERABILERARI BURUZKO GIDALERRO OROKORRAK	5
7.	INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA	7
8.	BERRIKUSPEN ETA KONTROL AHALMENA	9
9.	INSTALAZIOETAN SARTZEA	10
10.	SARE KORPORATIBOAN SARTZEA	11
11.	EKIPO INFORMATIKOEN ERABILERA (HARDWAREA)	13
12.	PROGRAMA ETA FITXATEGI INFORMATIKOEN ERABILERA (SOFTWAREA)	14
13.	INTERNETEKO NABIGAZIOA	15
14.	POSTA ELEKTRONIKOAREN ERABILERA	16
15.	BILTEGIRATZEA (SAREKO UNITATEAK, ELKARLANEKO PUNTUAK, ETAB.)	17
16.	HORNITZAILEAK ESKURATUTAKO BALIABIDEAK	18
17.	BETE BEHARREKOA	18
18.	DATU PERTSONALEN BABESA ETA KONFIDENTZIALTASUNA	19
19.	JOKABIDE ARAUAK BETE BEHARRA	21
20.	INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA	22
21.	ZERIKUSIA DUTEN DOKUMENTUAK	23
22.	BERRIKUSPENEN HISTORIA	23

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea**3. SARRERA**

- 3.1. Lantikek azpiegiturak eta informatikako baliabideak dauzka, bere zerbitzuak eraginkortasunez eta azkartasunez ematen dituela bermatzen dutenak. Laneko tresna horien artean, besteak beste, tresna informatikoen erabilera, beste sare batzuetan sartzea (adibidez: Internet, intranet, sare korporatiboa), zerbitzu korporatiboen erabilera (posta elektronikoa adibidez), aplikazioak eskuratzea etab ahalbideratzen dituzten ekipo informatikoak, programak, zerbitzariak, sareak eta abarrekoak daude.
- 3.2. Baliabide horien erabilera asko zabaldu da eta, gainera, Lantikek bere bezeroei ematen dien zerbitzuagatik zenbait erantzukizun dauzka. Horregatik guztiagatik, zenbait arau argi ezarri behar dira, erakunde hornitzaileek bitarteko horiek modu egokian erabiltzen laguntzeko.
- 3.3. Definizioak

[Administratzaileak](#)

[Eguneraketa BFA](#)

[EAZ](#)

[Pasahitzak](#)

[Erabiltzaile kontua edo "User-id"](#)

[Internet helbideak Erakunde](#)

[Hornitzailea Informazioa](#)

[Informatika](#)

[mugikorra](#)

[Azpiegitura](#)

[Erabiltzailearen](#)

[profila](#)

[Administratzailearen profila](#)

[\(sekundarioa\) Sarea \(datuena\)](#)

[Barne sarea](#)

[Informazio sistema](#)

[Erabiltzailea](#)

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**4. APLIKAZIO EREMUA**

- 4.1. Jokabide Informatikoaren Kode honetan jasotako arauak Lantik enpresaren erakunde hornitzaile guztiei aplikatuko zaizkie.
- 4.2. Jokabide Informatikoaren Kode honek xedatzen duenerako, hornitzailea Lantiki zerbitzuak eskaintzen dizkion pertsona edo enpresa oro izango da, bertako langilea ez bada. Halaber, hornitzailetzat jotzen da kanpoko edozein pertsona, edozein harremanen babesean, Lantiken edo bere bezeroen informazioa edo baliabideak lortzen baditu.
- 4.3. Jokabide Kodea Lantiken sarearen bidez egiten diren komunikazio guztietarako ere aplikatu behar da, baita erakundeak erakunde hornitzaileei eskaintzen dizkien tresna eta sistema guztietarako ere.
- 4.4. Lantikek baliabide berriak sartzen baditu eta erakunde hornitzaileen esku jartzen baditu, eta kode honetan aurreikusten direnetatik ezberdinak dira, beraiei buruzko arauketa zehatzago bat sortzen den arte, Jokabide Informatikoaren Kode honetan xedatutakoa aplikatuko da beraien erabilerari dagokionez.
- 4.5. Lantiken azpiegiturak edo baliabide informatikoak administratzen dituzten pertsonen, gainera, NSG 1/1 Segurtasun Arauaren eranskinean jasotako arauak aplikatuko zaizkie: Jokabide Informatikoaren Kodea. Administratzaileentzako eranskina Segurtasun Sailak emango die administratzaileei.
- 4.6. Jokabide Informatikoaren Kode honen edukiari buruz sor daitekeen edozein zalantza edo kontsulta tekniko argitze aldera, EAZaren bidez kontsulta egiteko eskatzen dizugu.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**5. ZIOAK ETA HELBURUAK**

- 5.1. Jokabide Informatikoaren Kode honetan dauden gidalerroak finkatzeko arrazoia arau argiak ezarri beharrean datza. Arau horiek (i) Lantikek erakunde hornitzaileei eskaintzen dizkien laneko sistema eta tresna tekniko eta informatikoak modu egoki eta eraginkorrean erabiltzen direla bermatu behar dute, (ii) tresna horien erabilera okerra edo desegokia galarazi behar dute, eta (iii) Lantikek eta erakunde hornitzaileek aplikatu behar diren arauzko xedapenak betetzen dituztela bermatu behar dute.
- 5.2. Era berean, erakunde hornitzaileak informazioaren segurtasunari buruz kontzientziatu nahi ditu, bai Lantiken instalazioen barruan, bai kanpoan. Horregatik, hornitzaileak Lantiken instalazioetatik kanpo dauden ordenagailuen bidez sare korporatiboan sartu ahal direnean ere Jokabide Informatikoaren Kode honetako arauak eta erregelak bete behar dira.
- 5.3. Jokabide Informatikoaren Kode honen bitartez, gainera, Lantiken erakunde hornitzaile guztiak baliabide informatikoak behar bezala erabiltzearen garrantziaz jabetzea nahi dugu, beste batzuekin (administrazioak, bezeroak, enpresak, etab.) eta gainerako erakunde hornitzaileekin hartzen ditugun kalitate eta konfidentzialtasun konpromisoak bermatze aldera. Izan ere, Lantikek oso konpromiso maila garrantzitsua hartu du bere informazioari dagokionez; ezin zaio inori jakitera eman edo inoren eskura jarri.
- 5.4. Gure erakundearen informazioaren teknologia berriak sartu direnez gero, Lantiken ingurutik kanpo informazioa jakitera ematean sor daitezkeen arriskuak izugarri gehitu dira. Hori bereziki esanguratsua da Lantiken ingurune instituzional eta publikoan. Horrenbestez, egiten dugun lanaren izaera sentikor eta konfidentziala kontuan izanik, Lantikek bere barruan dauden tresna tekniko eta informatikoen erakunde hornitzaileek egiten duten erabilera monitorizatzeko eta gainbegiratzeko sistemak eskuratu ditu.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**6. BALIABIDE INFORMATIKOEN ERABILERARI BURUZKO GIDALERRO OROKORRAK**

- 6.1. Hemen deskribatzen diren gidalerroek baliabide informatikoei eta azpiegiturari eman behar zaien erabilera modu argi eta gardenean zehaztu nahi dute. Erakunde hornitzaileek arau hauek betetzean izan ditzaketen zalantza edo argibide guztiak argitzeko prest dago Lantik.
- 6.2. Lantiken asmoa jabetza intelektual edo industrialeko legeen edukia betetzea da. Horregatik, erakunde hornitzaileek programak edo informazioa erabili eta Lantiken esku jarri baino lehen egiaztatu beharko dute jabetza intelektual edo industrialaren legeek babestuta dauden. Betiere, iturria aipatu behar dute, informazio hori edozein lan-dokumentutan erabiliz gero.
- 6.3. Lantikek edozein unetan eskatu ahal izango du jakinarazi zaion edo hornitzaileak sortu duen edozein motatako informazioa berehala itzuli edo suntsitu dadin.
- 6.4. Lantikek edozein unetan ikuska ditzake bere baliabideak edo besteenak, kontratatutako zerbitzuen euskarri badira.
- 6.5. Erakunde hornitzaileek eskaintzen zaizkien bitartekoak erabilera egoera optimoan gorde behar dituzte. Beharrezkotzat jotzen ez den informazioa edo baliorik ez duena ezabatu behar dute, Lantiken zerbitzuen errendimendua eta kalitatea hobetzeko eta operatibitate egokia bermatzeko.
- 6.6. Erakunde hornitzaileen eskura jarritako Lantikeko informazioa eta IT baliabideak Lantikek hala eskatzen duenean itzuli beharko dira, edo, bestela, lana edo proiektua amaitzen denean, arrazoia edozein dela ere.

Segurtasun gorabeheren kudeaketa eta komunikazioa.

- 6.7. Segurtasun gorabeherak berehala hauteman beharko dira eta EAZi jakinarazi, ezarritako prozedurak jarraituta; horrela, ahalik eta lasterren abiarazi ahal izango dira neurri zuzentzaileak. Jarraian, jakinarazi beharreko gorabeherena adibide batzuk azalduko dira:
 - Lantikeko edozein IT baliabide edo informazio galtzea edo kaltetzea.
 - Lantikeko informazio edo IT baliabide batera sartzeko autentifikazio pasahitz edo gako bat arriskuan jartzea edo galtzea.
- 6.8. Lantikeko erakunde hornitzaileak segurtasun ahultasun edo kalteberatasunen bat hautematen badu Lantikeko edozein sistematan, horren berri eman beharko du horretarako ezarritako kanalen bidez; unean-unean hura ez jakinaraztea segurtasun gorabeheratzat joko da bere horretan. Guztiz debekatuta dago hautemandako segurtasun ahultasun edo kalteberatasun hori frogatzen edo ustiatzen saiatzea.
- 6.9. Lantikek eskubidea izango du segurtasun neurri egokiak hartzeko Lantikeko erakunde hornitzaileak kalteberatasunen bat duela jakinarazten zaionean edo horren zantzuak dituenean.
- 6.10. Era berean, Lantikeko erakunde hornitzailea ohartzen bada bere sistematan kalteberatasunen bat dagoela eta segurtasun gorabeheraren bat izan dezakeela, horren berri eman beharko di, Lantiken sistematan eraginik ez izateko neurri egokiak har ditzan.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**Helburu profesionaleko erabilera**

- 6.11. Lantikek erakunde hornitzaileen esku jarritako bitarteko guztiak helburu profesional hutsarekin erabiltzeko entregatzen dira. Ezin da ekipo informatiko profesionaletan dagoen informazio edota dokumentazio pribaturik gorde.
- 6.12. Lantik sarearen bidez izandako konexio guztiak (korporatiboa, internet, etab.) helburu profesionalarekin erabiliko dira.
- 6.13. Bestelako erabilerarik debekatua dago.

Lantikekiko harremanaren amaiera

- 6.14. Lantikek sistema informatiko egokiak eskaintzen dizkie hornitzaileei, beraiekin duen harremana indarrean dagoen bitartean euren funtzioak bete ditzaten. Lantikekiko lankidetzak amaitzen dutenean, ezin izango dira sartu ekipo tekniko eta informatikoetan, eta horrenbestez, ezin izango dituzte beraietan dauden fitxategiak eskuratu.
- 6.15. Hornitzaile ohi batek bitarteko edo ekipo informatikoak baldin badauzka (ordenagailu eramangarria, euskarriak, informazioa eta abarrekoak), harremana amaitu baino lehen itzuli behar ditu.
- 6.16. Era berean, hornitzaile batek Lantikekin harremana amaitzen badu, fitxategi eta dokumentu guztiak ukitu gabe utziko ditu.
- 6.17. Sarbide kredentzialak desgaitu egingo dira autentifikatzen duten erakunde hornitzaileak Lantikekin duen harremana amaitzen duenean.
- 6.18. Konfidentziasuna, pribatutasuna eta jabetza intelektuala (halakorik balego) babesteko betebeharrak Lantikekiko harremana amaitu ondoren ere iraungo dute.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**7. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA**

- 7.1. Lantiken jarduerekin lotutako informazio guztia, informazio publikoa izan ezik, erabilera ofizialekotzat jotzen da, eta, beraz, erakunde hornitzaileak behartuta daude informazioa agindutako eginkizunak betetzeko soilik erabiltzera, telelanean ari direnean arreta handiz jokatzuz.
- 7.2. Erakunde hornitzaileek informazio korporatiboa babestu, gorde eta konfidentzialtasun osoz tratatu beharko dute; zehazki, eta oro har, ezin izango dute hura erreproduzitu, eraldatu ezta bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa ez den beste modu batean erabili ere. Gainera, erakunde hornitzaileek beren eginkizunak eta betebeharrak behar bezala betetzeaz gain, alde batetik, Lantik enpresak bere informazio sistema korporatiboak babesteko hartzen dituen segurtasun neurri eta jarraibideak (teknikoak eta antolakuntzakoak) bete beharko dituzte, eta, bestetik, datuen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloan indarrean dagoen araudia ere bete beharko dute.
- 7.3. Erakunde hornitzaileek badakite Lantiken jabetzakoak izango direla eskusiboki bai Lantiken informazioa, bai harekin lotutako informazioan oinarrituta lortzen dena. Hortaz, ezin izango dute hura ezagutzera eman, ezta jarduera garatzean baimenduta eta justifikatuta ez dagoen IT baliabideen deskarga edo erauzketarik egin ere.
- 7.4. Erakunde hornitzaileek Lantik enpresaren edozein informazio baino ez dute eskuratu edo erabiliko, bai eta Lantik enpresaren ardurapean, kontrolpean eta/edo zaintzapean dauden edukiak ere, eta erabilera edo lizentzia, copyright edo zehaztutako eskakizunak bete beharko dituzte. Erakunde hornitzaileek ezin izango dizkiete aipatutako edukiak kopiatu, zabaldu, eman edo hedatu horretarako aipatutako erabilera, lizentzia, copyright edo eskakizunen babesa ez duten pertsoneri.
- 7.5. Erakunde hornitzaileak informazioa eta haren kopiak behar bezain seguru gorde beharko ditu, hirugarren batek baimenik gabe eskuratu ez ditzan. Halaber, adostutakoaren arabera, ez da kopiarik egingo eta informazioa ez da erreproduzituriko, pertsona eskudunak justifikatutako eta baimendutako kasuetan izan ezik. Kasu horiek ezin izango dute, inoiz, Jokabide Kode honetan adierazitakoaren kontra egin.
- 7.6. Formatu fisikoko informazioaren kontrola eta zaintza mantendu behar dira, batez ere izaera konfidentziala duen informazioarekin eta datu pertsonalak dauzkan informazioarekin. Kasu honetan, Jokabide Informatikoaren Kode honetako "18DATU PERTSONALEN BABESA Y KONFIDENTZIALTASUNA" atalean azaldutakoa bete behar da.
- 7.7. Erakunde hornitzaileek informazioa sailkatzeko maila bakoitzari dagozkion neurriak ezagutu eta aplikatu beharko ditu, hau da:
 - Modu ofizialean erabiltzeko informazioa:
 - o Informazio konfidentziala: Lantiken informazio sentikorra dauka eta informazio hori galduz gero gerta liteke Lantiken izenari edo finantzei kalte larria egitea, edo/eta euren eginkizunak betetzeko eskuratzen dutela justifikatzen dutenek bakarrik ezagutu dezakete informazio hori. Talde horren barruan daude datu pertsonalak barne hartzen dituzten tratamenduak.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea

- o Informazio pribatua: Informazio mota hau zabaltzea, arriskuan jartzea edo suntsitzea, zuzenean edo zeharka, ondorio kaltegarriak izango lituzke Lantiken edo bertako langileen gain. Informazio gehiena maila honretan dago.
 - Informazio publikoa: Aurreko mailatan sailkatuta ez dagoen informazioa. Hori da Lantikek publikoaren eskura jartzen duen informazioa bere webgunean edota beste edozein hedabide publikotan (eskaintzak, prentsa, etab.). Aldez aurretik jakinarazi ez bada ere, informazio hori jendeak eskuratzeko modukoa da (aldez aurretik jabeari eskatuta). Talde horren barruan sartzen dira harremanetarako informazioa, argitaratutako informazio korporatiboa, merkataritza erregistroko informazioa, enpresaren publizitatea, etab.
- 7.8.** Oro har, erakunde hornitzaileen informazio trukea haien informazio motarako ezarritakoaren arabera egingo da, betiere Lantikeko langileek truke horretarako egin ditzaketen eskaerei eta betekizunei erantzunez.
- 7.9.** Oro har, dokumentuak digitalizatzen direnean, hornitzaileak arreta berezia jarri beharko du irudiak biltegitratzean, tratatzean eta transmititzean, batez ere informazio pribatua edo konfidentziala badute.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**8. BERRIKUSPEN ETA KONTROL AHALMENA**

- 8.1. Lantikek beretzat gordetzen ditu sistema informatiko guztiak berrikusteko ahalmena, eta dauzkan bitartekoen bidez hornitzaile bakoitzak eskaini zaizkion bitarteko eta baliabide informatikoei ematen dien erabilera kontrolatzeko ahalmena, Lantiken eta gainerako erabiltzaileen interesak babesteko beharrezkotzat jotzen badu, edo segurtasuneko edo zerbitzuko arrazoi zehatzengatik komenigarria bada, uneoro tratamenduaren premia, minimizazio eta proportzionaltasun printzipioak bermatuta.
- 8.2. Informazio sistemetarako sarbideak monitorizatu eta erregistratu ahal izango dira, horien erabilera ikuskatzeko.
- 8.3. Lantik tratamenduaren arduraduna denez, hornitzaileei jakinaraziko die bere datuak tratatuko direla IT azpiegiturarako sarbide logikoa lehortzeko eta ziberintzidentek kudeatzeko. Tratamendu horrek esan nahi du Lantiken sistema korporatiboetarako sarbidea eta erabilera geolokalizatzea ahalbidetzen duten datuak izan daitezkeela. Datuen tratamendua legitimatuta dago hornitzailea Lantikekin lotzen duen kontratu harremana garatzeko eta gauzatzeko.
- 8.4. Halaber, Lantikek datu horien berri eman ahal izango die Estatuko Segurtasun Indarrei eta Kidegoei: salaketetan eta/edo errekerimendu judizialetan, bai eta epaitegiei errekerimendu judizialaren bidez. Kontsultatzeko sartu Lantiken webgunean. Bertan, xehetasun handiagoz dago azalduta tratamendu hori, baita eta interesdunen eskubideei buruzko informazioa ere.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**9. INSTALAZIOETAN SARTZEA**

- 9.1. Lantiken instalazioetara sartzen den pertsona orok (batez ere DPZ osatzen duen funtsezko ekipamendua dagoen lekuetan) sarbide araudi aplikagarria bete beharko du.
- 9.2. Lantiken instalazioetara sartzeko, beharrezkoa izango da identifikazio txartelaren bidez sarrerak kontrolatzeko sistema bat ezartzea:
- Identifikazio txartela ematea, eta txartel hori beti ikusteko lekuan eraman beharko da.
 - Zerbitzua edo bisita amaitu ostean, txartela itzuli egin beharko da Lantiken beheko solairuan dagoen zaintza postuan.

Lantikeko instalazioetara sartzen diren erakunde hornitzaileei emandako txartelen bidez sarbideei buruz eskuratutako informazioa erregistratuko da.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**10. SARE KORPORATIBOAN SARTZEA**

- 10.1. Hornitzailearen erabiltzaileak hornitzaileak sinatutako konfidentziasun klausulen edukia bete beharko dute, konfidentziasunari eta dauden politikak eta prozedurak errespetatzeari dagokionez.
- 10.2. Erakunde hornitzaileen kontu guztiek zehaztu beharko dituzte erabiltzaile izen bakarra eta pasahitza duten kredentzialak.
- 10.3. Lantikeko erakunde hornitzaileek onartutako segurtasun arauak bete behar dituzte.
- 10.4. Hornitzaileek ezin dute sare korporatiboa erabili beste pertsona edo erakunde batzuei sartzen uzteko.
- 10.5. Enpresa hornitzaileek ondoren azalduko diren jarraibideak onartuko dituzte pasahitzak sortzeari eta kudeatzeari dagokionez, eta pasahitzak arduraz eta arretaz aldatzeko eta zaintzeko hartzeko konpromisoa hartuko dute. Horri dagokionez, pasahitzak sortzeko eta kudeatzeko honako ezaugarri hauek hartu beharko dira kontuan:
 - Luzera: 8 karaktere edo gehiago.
 - Konplexutasuna: ezin izango da erabiltzailearen izena izanez osorik ezta zati batean ere, eta gutxienez lau kategoriatako (minuskulak, letra larriak, zenbakiak eta sinbolo bereziak) hiru karaktere izan beharko ditu.
 - Errepikapena: pasahitza ezin izango da bat etorri aurretik erabilitako azken 8 pasahitzekin.
 - Erabiltzailearen kontu izenaren edo izen osoaren zati esanguratsuak ez dituzte izan behar.
 - Semantika: saihestu egin beharko dira karaktereak errepikatzen, hiztegiko hitzak erabiltzen edota sekuentzia sinpleak dituzten pasahitzak (senideen edo maskoten izenak, matrikulak, telefono zenbakiak, etab.).
 - Sartzean saiakera oker kopuru mugatua dago: erabiltzailea edo pasahitza hamar aldiz oker eman ondoren ekipoa blokeatuko da.
 - Neurriak: ez idatzi pasahitza paper batean, ez bidali bitarteko elektronikoen bidez, ez erabili pasahitz bera hainbat zerbitzutarako, nabigatzaileen eta aplikazioen "Gogoratu pasahitza" ezaugarria desaktibatuta, etab.
 - Sareko pasahitzak bezala, larrialdietako pasahitzak ere konplexutasun irizpideak bete behar ditu.
 - Isilpean gorde.
 - Kredentzialak arriskuan daudela frogatzen bada edo susmoak badaude, berehala jakinarazi beharko da.
- 10.6. Arau orokor gisa, erakunde hornitzaileek sarrera kredentzialak aldatu beharko dituzte lehen aldiz saioa hasten denean.
- 10.7. Erakunde hornitzaileen kredentzialak gaitasun gabe utziko dira (hala badagokio, berriz sortu daitezke) baldin eta baimenik ez duten erakundeek (pertsonek, taldeek edo prozesuek) galera, konpromisoa edo berri ematea jasota bada edo susmatzen bada.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea

- 10.8. Lantiken erakunde hornitzaileek sarea erabiltzeari dagokionez sortzen zaizkien arazo guztiak EAZri jakinaraziko dizkiote.
- 10.9. Baliabidea helburu profesional hutsarekin erabiliko da.
- 10.10. Bestelako erabilerarik debekatua dago.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**11. EKIPO INFORMATIKOEN ERABILERA (HARDWAREA)****Printzipio orokorrak**

- 11.1. Baliabidea helburu profesional hutsarekin erabiliko da.
- 11.2. Bestelako erabilerarik debekatua dago.
- 11.3. Oro har, debekatuta dago Lantik enpresaren erakunde hornitzaileek memoria erauzgarriak dituzten euskarriak erabiltzea (adibidez: USB), Lantiken kudeaketa operatiboak behar bezala justifikatutako salbuespenak izan ezik.
- 11.4. Espresuki debekatuta dago edozein bitarteko erabiliz beste erabiltzaile batzuen sistema informatikoetan sartzea beste erabiltzaile baten identifikazio pertsonaleko gakoa (login) edo pasahitza (password) erabilia.
- 11.5. Edozein arrazoi dela eta, hornitzaile batek bere lanpostua uzten badu, bere sistema blokeatuko du, baimenik ez duen inork ezin izan dezan eskuratu hornitzailearen ekipoa gordeta egon daitekeen Lantiken informazioa.
- 11.6. Erakunde hornitzaileek bitarteko eta ekipa informatikoak (hardware) ondo erabiltzen dituztela egiaztatzeko Lantikek egiten dituen kontrolari eta berrikuspenari dagokienez, Jokabide Informatikoaren Kode honetako 8.1 eta 8.2 klausuletako edukia aplikatu behar da.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jarraibide Informatikoaren Kodea**12. PROGRAMA ETA FITXATEGI INFORMATIKOEN ERABILERA (SOFTWAREA)**

Printzipio orokorrak

- 12.0. Nolanahi ere, MODU OFIZIALEAN ERABILTZEKO informazioa ezin zaie bidali informazioa jaso behar duten erakundeak eta pertsonak ez direnei, salbu eta Lantiken aplikatu beharreko arau orokorrak betez egiten bada.
- 12.1. Lantiken erakunde hornitzaileei eskaintzen zaizkien programa eta fitxategi informatikoak erabilera profesionalerako dira soilik.
- 12.2. Erakunde hornitzaileek programa eta fitxategi informatikoak erabiltzeko modua kontrolatzeari eta berrikusteari dagokionez, Jokabide Informatikoaren Kode honetako 8.1 eta 8.2 klausulak aplikatu beharko dira.

Programen eta fitxategi informatikoen segurtasuna

- 12.3. Zerbitzua eskaintzeko erabilitako ekipo guztiek birusen kontrako programa instalatua izango dute. Aitzitik, birusen aurkako programa horiek ez dute guztiz bermatzen birus informatikoak sortu eta zabaltzeko ezin direnik. Horregatik, hornitzaileak kontu handiz ibili beharko du iturri ezezagunetatik datozen fitxategiak exekutatzeko orduan. Zalantzarik izanez gero, mesedez, ez exekutatu fitxategia edo programa eta jarri harremanetan EAZarekin.
- 12.4. Erakunde hornitzaileek ezingo dute inolaz birusen kontrako programa desaktibatu, ekipoetan instalatuak badaude.

Segurtasuna bideokonferentziak grabatzean

- 12.5. Lantik sozietateak erakunde hornitzailearekin egindako bilerak grabatu ahal izango ditu. Datuen tratamendua legitimatuta dago, beharrezkoa baita erakunde hornitzailearekin dagoen kontratu-harremana garatu eta egikaritzeko, edota, hala badagokio, azken horrek baiezkua eman duelako.
- 12.6. Bilera edo deia grabatuko denean, berorretarako deialdia egiten duen pertsonak gainerako parte-hartzaileei horren berri eman behar die, eta, salbuespenez eta soilik bileraren grabazioa berorren edota deiaren parte-hartzaileen eginkizunetatik kanpo geratzen denean, parte-hartzaileen baimena ere eskatu behar izango da.
- 12.7. Bilerara deitutako pertsonen kopurua mugatu behar da, eta talde edota zerrenda generikoetara birbidaltzea saihestu, eta sartzeko kodeak eta estekak berrerabiltzea saihestu behar da ere bai. Bileraren grabazioa ikusteko baimena berori behar dutenei soilik eman behar zaie, eta biltegiratzen den denbora une oro mugatu behar da.
- 12.8. Erakunde hornitzaileak arduratsua izan behar du bitartekoak erabiltzean, bereziki pantaila zein bideoa partekatzeko bitartekoekin eta mikrofonoa aktibatzeoekin; halaber, jardunbide egokiak ere aplikatu behar ditu, hala nola itxarongela aktibatzea eta kamera zein mikrofonoa besterik adierazi ezean piztuta izatea, mikrofonoa eta ordenagailuko kamera amatatzea bileratik tartetxo batean joan behar denean, atzealdea lausotzea edota beti aplikazioa partekatzea, eta ez, ordea, pantaila, batzuk aipatze aldera.
- 12.9. Datu pertsonalak tratatzeari buruzko gainerako informazioaaviso legal Lantiken web orrian dago argitaratuta.

13. INTERNETEKO NABIGAZIOA**Printzipio orokorrak**

- 13.1. Ezin da inola ere jokoan, sexu edukiko, edo giza duintasunarentzat edo funtsezko eskubideentzat iraingarriak edo laidogarriak diren internet helbideetan sartu. Era berea, orrialde ez ofizialak, ezezagunak edota zalantzazko ospea dutenak saihestu behar dira edozein informazio edo software deskargatu nahi denean.
- 13.2. Baliabidea helburu profesional hutsarekin erabiliko da.
- 13.3. Bestelako erabilerarik debekatua dago.
- 13.4. Beren funtzioak betetzeko erakunde hornitzaileek erabiltzen dituzten ordenagailuetatik egiten diren Interneten sareko konexioen datuak kontrolatu eta berrikusi ahalko ditu Lantikek, baita konexio horien edukia ere, Jokabide Informatikoaren Kode honetako 8.1 eta 8.2 klausuletan ezarritakoaren arabera.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea**14. POSTA ELEKTRONIKOAREN ERABILERA****Laneko posta elektronikoa**

- 14.1. Behar bezala justifikatuta eta baimenduta dauden kasuetan izan ezin, Lantikek ez die mota horretako baliabiderik emango erakunde hornitzaileei.
- 14.2. Helbide elektroniko korporatiboko kontuetara sartzeko baimena duen erakunde hornitzaileak saihestu egin behar du iruzkinak mespretxuz edo irainez egitea, ez eta iritzi politikoak, erlijiosoak edo ideologikoak ematea ere. Iritzi horiek pertsonalak dira eta ez dira Lantikekin lotu behar. Era berean, saihestu beharko da kritika arduragabeak eta argudiorik gabekoak egitea, edo bitarteko horien bidez eztabaidak eta liskarrak eragitea.
- 14.3. Lantiken eta bere bezeroen edo balizko bezeroen arteko harremanak behar duen tratu konfidentziala gauzatzeko, ezinbestekoa da egin beharreko komunikazioaren araberako komunikazio-sistema egokienak erabiltzea. Horregatik,
 - 14.3.1. Aplikatu behar den araudia betetzeaz eta erabilera egokia eta segurtasuna bermatzeaz gain, komunikazioen edukia Lantiken zerbitzu teknikoek auditatzeko eta kontrolatzeko modukoa dela ziurtatu behar da.
 - 14.3.2. Lantiken eta hornitzaileen arteko informazio trukea modu seguruan (zifratuta) egingo da sailkatutako informaziorako, bai pribaturako, bai konfidentzialerako.

Posta elektroniko profesionalari aplikatu behar zaizkion printzipio orokorrak

- 14.4. Informazioa ateratzen ez dela ziurtatzeko eta zerbitzuaren eraginkortasuna bermatze aldera, posta beharrezkoa denean bakarrik erabiliko da, eta ezinbesteko hartzaileei bakarrik bidaliko zaizkie mezuak.
- 14.5. Berariaz debekatuta dago Lantiken sistema informatikoko beste erabiltzaile batzuen mezuak edo posta elektronikoko helbideak baimenik gabe atzematea edo erabiltzea.
- 14.6. Lantiken erakunde hornitzaileek fidagarria ez den jatorriko mezu elektronikoak errefusatu behar dituzte, birusak edo kode gaiztoak, SPAM edukia etab. eduki ditzaketelako.
- 14.7. Lantiken erakunde hornitzaileek ez dute postako helbidea jakitera emango, beharrezkoa ez bada. Horrenbestez, ez dute parte hartuko mezu kateetan, nahiz eta helburua itxuraz asmo onekoa izan.
- 14.8. Posta elektronikoa erabiltzen duten erakunde hornitzaileek informazioa trukatzean konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzeko zehazten diren arauak eta politikak jarraituko dituzte.
- 14.9. Erakunde hornitzaileek posta elektronikoa ondo erabiltzen dutela egiaztatzeko Lantikek egiten dituen kontrolari eta berrikuspenari dagokienez, Jokabide Informatikoaren Kode honetako 8.1 eta 8.2 klausuletako edukia aplikatu behar da.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea**15. BILTEGIRATZEA (sare unitateak, elkarlaneko puntuak, etab.)**

- 15.1. Lantikek erakunde hornitzaileei eskaintzen dien biltegitratzea erabilera profesionala du soilik.
- 15.2. Inola ere ezin da erabili erakunde hornitzaileen eskura jarritako biltegitratzea datu pribatuak edo ez profesionalak biltegitratzeko.
- 15.3. Lankidetzako lan unitatea Office 365eko tresnak izango dira, dagozkion sarbide kontuan hartuta.
- 15.4. Debekatuta dago bestelako erabilerarik.
- 15.5. Baliabide horiek erabiltzen dituzten erakunde hornitzaileek informazio trukaketaren konfidentzialtasuna eta integritatea bermatzeko ezarritako arauak eta politikak bete behar dituzte.
- 15.6. Erakunde hornitzaileek sareko unitateak (biltegitratzea) ondo erabiltzen dituztela egiaztatzeko Lantikek egiten dituen kontrolari eta berrikuspenari dagokienez, Jokabide Informatikoaren Kode honetako 8.1 eta 8.2 klausuletako edukia aplikatu behar da.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea**16. ERAKUNDE HORNITZAILEAK ESKURATUTAKO BALIABIDEAK**

- 16.1. Atal hau erakunde hornitzaileek zerbitzua eskaintzeko eskuratutako baliabideei aplikatzen zaie.
- 16.2. Lantiken azpiegituran sartu baino lehen, honakoak bete behar ditu:
 - 16.2.1. Lantikeko arduradunari jakinaraztea eta bere baimena izatea.
 - 16.2.1.1. Horrek Politika Teknologikoei jakinaraziko die onar edo uka ditzaten.
 - 16.2.1.2. Baimendu ondoren, Lantiken Segurtasun Sailak baimena eman beharko du ere.
 - 16.2.1.3. Ez da baliabiderik sartuko, Segurtasun Sailak horiek ontzat eman arte. Sartuz gero, Segurtasun Sailak proposatutako kontrolak ezar daitezke.
- 16.3. Erakunde hornitzaileak Lantik domeinuan sartu nahi dituen ekipo guztiei kalteberatasunak hautemateko prozesu bat ezarriko zaie, eta prozesu hori gaingitu egin beharko dute, sartzeko gaitzeko. Halaber, antibirusa eguneratuta dagoela egiaztatu behar da, bai eta sistema eragilearen bertsioaren ebidentzia ematea ere.
- 16.4. Lantiken enpresa kolaboratzaileek jabetza intelektuala babesteko arauak bete beharko dituzte, betiere legezko softwarea erabiliz eta instalatutako softwarearen lizentzien inbentarioa mantenduz.
- 16.5. Lantikek auditoretza eskubidea izango du erakunde hornitzaileak emandako baliabideen gainean (segurtasun auditoriak, hacking etikoko txostenak, segurtasun ziurtagiriak berritzea, Zentro Kriptologiko Nazionalaren (CCN) STIC Produktu eta Zerbitzuen Katalogoaren (CPSTIC) arabera osagai kualifikatuak erabiltzen direla edo ziurtatuta daudela ziurtatzen duten materialak hornitzea).
- 16.6. Informazioa trukatzeko eta beste sistema batzuekin zerbitzuak emateko konexioak ezartzeko, beste sistema horiek aldeztu aurretik baimendu beharko dira, eta debekatuta egongo da berariaz onartuta ez dagoen edozein informazio fluxu.
- 16.7. Interkonexio hori ezartzeko, Lantik enpresak egokitzen jotzen dituen segurtasun jarraibideak onartuko dira.
- 16.8. Sare korporatibora urrunetik konektatzeko, Lantikek zehaztutako segurtasun jarraibideak betetzen dituzten gailuak erabili beharko dira beti. Lantikek beretzat gordetzen dituen urruneko konexio guztiak berrikusteko ahalmena, eta daukan bitartekoen bidez erabiltzaile bakoitzak eskaini zaizkion konexioak eta baliabide informatikoei ematen dien erabilera kontrolatzeko ahalmena, Lantiken eta gainerako erabiltzaileen interesak babesteko beharrezkotzat jotzen bada, edo segurtasuneko edo zerbitzuko arazoak zehatzengatik komenigarria bada.

17. BETE BEHARREKOA

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea

17.1. Nahitaezkoa da erakunde hornitzaileek legeria aplikagarria betetzea, hala nola datuak babesteko araudia, SEN, JIL, IGZL etab.

18. DATU PERTSONALEN BABESA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

- 18.1. Lantiken baliabide informatikoak hornitzen dituzten erakundeen erantzukizuna da informazio hori eskuratzea, eta DBEOn ezarritako neurriak ezagutzea eta betetzea.
- 18.2. Lantikek hornitzaileari kontratatutako produktuak edo zerbitzuak bigarren horren datu pertsonalak Lantiken kontura tratatzea badakar, hornitzailea izango da tratamenduaren arduraduna. Beraz, hornitzailea izango da datu pertsonalak babesteari buruzko araudia osorik bete behar duena, bai eta datu horiek lotzen dituen baldintza agirian edo kontratu txikian ezarritako betebeharrak ere. Datu pertsonalak adostutako helburuetarako baino ez dira erabiliko, Lantiken jarraibideen arabera, eta Lantikek horiek betetzen direla ikuskatzeko ahalmena izango du.
- 18.3. Tratamenduaren arduradunak kontratatutako zerbitzuak emateko erabiltzen dituen informazio sistemetan datu pertsonalen segurtasuna urratzen bada, tratamenduaren arduradunak Lantiki jakinarazi beharko dio, bidegabeko atzerapenik gabe, bere kargura dituen datu pertsonalen segurtasuna urratu dela, eta horrekin batera, DBEOn 33.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, gorabeheraren dokumentaziorako eta komunikaziorako garrantzitsua den informazio guztia.
- 18.4. Datuak babesteko araudiak eskubide hauek ematen dizkie pertsona fisikoei, besteak beste, Lantikeko erakunde hornitzaileetako langileei: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta banakako erabaki automatizatuak eta, hala badagokio, eramangarriak ez hartzeko eskubidea.
- 18.5. Erakunde hornitzaileek beren eginkizuna betetzean ezagutu dezaketen edozein datu erabat islpean eta konfidentziasunez gorde beharko dute, batez ere datu pertsonalei lotutako datuen kasuan. Datu horiek ezin izango dituzte dira kopiatu edo erabili zehaztuta ez dagoen helburu batekin edota beste batzuei laga, horiek kontserbatzeko bada ere. Isilpekotasun betebeharrak horrek bere horretan jarraituko du, nahiz eta Lantikekin lotzen dituen harremana amaitu.
- 18.6. Erakunde hornitzaileetako langileek kontratua dela eta eskuratzeko duten informazioa uneoro konfidentziasuna bermatzeko moduan tratatu beharko dute. Horrek esan nahi du saihestu egin beharko dela informazioa edo informazio hori jasotzen duten dokumentuak beste pertsona batzuen ageriko kokapenetan uztea, gainbegiratu gabe, eta informazioa gordetzen edo gordetzen den lekuetan konfidentziasuna bermatu beharko dela.
- 18.7. Erakunde hornitzaileek ziurtatu beharko dute beren kargura dauden langileek, azpikontralistek eta haien kargura dauden langileek konfidentziasun klausula bat sinatu dutela, eta, horren arabera, konpromiso hauek hartzen dituztela:
 - Karguan edo eginkizuna betetzean ezagutzen duen informazioa ez jakinaraztea, kontratuak iraun bitartean eta ondoren.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea

- Informazioaren segurtasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko politika betetzen dela bermatzeko segurtasun neurriak ezagutzea.
- 18.8. Erakunde hornitzaileak Lantiki jakinaraziko dio informazioa eskuratu duten pertsonen konfidentzialtasun akordio hori urratzearen ondorioz hedatu edo zabaldu izan ahal den informazio oro. Jakinarazpen horrek ez du erakunde hornitzailea bere erantzukizunetik salbuesten, baina betetzen ez badu, horren ondoriozko erantzukizun guztiak sortuko ditu, bereziki.
- 18.9. Kontratuak Lantiken informazio sistemara sartzeari eskatzen ez badu, baina bai, ordea, haren instalazioetara sartzeari, erakunde hornitzaileak konpromisoa hartuko du instalazioetarako sarbideengatik ustekabearen lor daitekeen informazioaren konfidentzialtasun osoa gordetzeko, eta, bereziki, Lantikentzat eta/edo hirugarrenentzat arriskutsua izan badaiteke, edota ezaguna bada eta/edo segurtasun arrakala izan badaiteke.
- 18.10. Hornitzaileek Lantikekiko harremana amaitu ondoren, adostutako moduan suntsitu edo itzuli beharko dituzte Lantiken datu pertsonalak, bai eta datu pertsonalen bat duen beste edozein euskarri edo dokumentu ere, baldin eta haien kontrolpean badaude. Konfidentzialtasun betebeharrak Lantikekiko harremana amaitutakoan ere mantenduko dira.
- 18.11. Debekatuta dago Lantiken informazio sistemen edo beste iturri batzuen bidez eskuratutako informazioa edozein bitarteko fisiko edo telematikoren bidez zabaltzea, Lantiken baimena izan ezean.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea**19. JOKABIDE ARAUAK BETE BEHARRA**

- 19.1. Zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeei aplika dakizkiekeen politikak, arauak eta prozedurak bete daitezzen eskatzeko, sisteman lan egiten duen pertsona bakoitzari jakinaraziko zaizkio bere lanpostuan segurtasunaren arloan dituen betebeharrak eta erantzukizunak.
- 19.2. Era berean, Lantikek uste du erakunde hornitzaileei gogorarazi behar zaiela gidalerro horiek zehatz-mehatz bete behar dituztela, bezeroen eta erabiltzaileen intimitatea zaintzeko, komunikazio sarearen kalitatea eta gaitasuna hobetzeko, eta segurtasuna handitzeko.
- 19.3. Horregatik, erakunde hornitzaileek dokumentu honetako gidalerroak betetzen ez badituzte, Lantikek neurri egokiak hartu beharko ditu, horretarako gorabeherak ebazteko jarraibideen bidez. Horrez gain, arau hauek betetzen ez dituen hornitzaileak erantzukizun zibil, penal edo lan izaerakoak izan ditzakete.
- 19.4. Gainera, Lantikek zerbitzua eten ahal izango du ordenagailuan edo sare gailuan, eta Lantik enpresak emandako baliabide tekniko eta informatikoak erabili dituen hornitzailearen erabiltzaileak blokeatu ahal izango ditu, betiere Jokabide Informatikoaren Kode honetan ezarritakoarekin bat ez badator.
- 19.5. Enpresa hornitzaileen erabiltzaileek segurtasunaren arloko prestakuntza jaso eta horren inguruan jabetzeko jardueretan parte hartu beharko dute.
- 19.6. Ekintza horiek segurtasun araudi aplikagarria gogoraraziko dute, baita erabiltzaileak tartean sar daitezkeen mehatxu nagusiak gogoratu ere.
- 19.7. Halaber, kontuan hartuko dira Lantiken informazio sistementzat arriskutsuak izan daitezkeen gorabehera edo jarduera susmagarriak identifikatzea eta horien berri ematea, bai eta horiek jakinarazteko modua ere.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea**20. INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA**

- 20.1. Jokabide Informatikoaren Kode honetan dagoen edukia nahitaez jakin eta bete behar dute Lantiken erakunde hornitzaile guztiek. Kodearen edukia 2011ko maiatzaren 2an sartu zen indarrean eta indarrean egongo da harik eta aldatzen den arte edo beste batek ordezkatu arte.
- 20.2. Lantikek erakunde hornitzaile bakoitzaren eskura jarri du horren kopia bat hemen: [Araudia - Lantik \(bizkaia.eus\)](#).
- 20.2.1. Helbide horretan dago une bakoitzean azkeneko bertsio erabilgarria.
- 20.3. Hornitzailearen erantzukizuna da bere erakundearen Jokabide Informatikoaren Kodea zabaltea.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea

21. ZERIKUSIA DUTEN DOKUMENTUAK

NCS-1/2 Erakunde Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

NSG 1/1 Segurtasun Arauaren eranskina: Jokabide Informatikoaren Kodea. Eranskina administrazioko lagileentzako.

22. BERRIKUSPENEN HISTORIA		
Berrikuspena	Data	Aldaketak
00	2011-03-24	Arauaren onarpena
01	2011-10-20	<ul style="list-style-type: none"> 3.3 atalean erabiltzailearen eta administratzailearen definizioak berrikusi ziren eta erabiltzaile profilarantzako eta administratzaile profilarantzako definizioak erantsi ziren. Aplikazio Eremua 4. atalean administratzailearen profila duten pertsonen, modu osagarrian, NSG 1/1 Segurtasun Araua: Jokabide Informatikoaren Kodea. <i>Administratzaileentzako eranskina izeneko Eranskinean dauden arauak aplikatuko zaizkiela adierazteko puntua erantsi zen.</i>
02	2013-05-10	<ul style="list-style-type: none"> Dokumentuaren irismenean kokapenak sartu ziren. Instalazioetan sartzeari buruzko atala sartu zen. Lantiken instalazioetan egoteko identifikazio agiria erraz ikusteko moduan eduki beharra erantsi zen. 01 bertsioaren behin-behineko denboraldia deuseztatu zen (18 titulua).
03	2016-11-29	<ul style="list-style-type: none"> Nagusiki, SEN betetzea gehitu zen. Euskarriak emateari buruzko aldaketa txikiak, jada ez dira euskarriak trukutzen. Posta korporatiboaren baliabideak debekatzeko posta elektronikoaren politika moldatu zen. HORNITZAILEAK ESKURATUTAKO BALIABIDEAK sartzeko prozedura hobetu zen. Kopia entregatzearen beharra deuseztatu zen, erakunde hornitzailearen esku egongo da hurrengo helbidean: http://lantik.bizkaia.eus/ca_contratacion.asp "Sare unitateetatik" "Biltegitratzera" titulua aldatu zen informazioa gordetzeko mota berriak sartzeko: sarea, SharePoint, etab. "HORNITZAILEEK ESKATU EZIN DITUZTEN BALIABIDEAK" titulu berria sartu zen Lantiken segurtasun politika berriak sartzeko, besteak beste, ez VPN, ez Intranet, etab. Salbuespenen prozedura sartzen da.
04	2018-09-21	<ul style="list-style-type: none"> Araua Datuak Babesteko Araudi Orokorrera (DBAO) egokitzea: DBLOari erreferentzia egiten diotenak ezabatu dira eta 17. atala berrikusi da. DATU PERTSONALEN BABESA. Dokumentua antolaketa-egitura berriaren eta lengoia neutroaren arabera eguneratu da.
05	2020-06-05	<ul style="list-style-type: none"> Kontrol informatikoko batzordeari buruzko 7.2 puntua ezabatu da, beharrezkoa ez dela erabaki baita.
06	2022-10-14	<ul style="list-style-type: none"> Luzatu egin da 7.1 puntua eta tratamenduari buruzko 7.2 eta 7.3 puntuak gehitu dira. Sarbide logikoen kontrola eta segurtasuna.

Segurtasun araua: Erakunde Hornitzaileetarako Jokabide Informatikoaren Kodea

07	2023-09-18	<ul style="list-style-type: none"> • Edukia luzatu da hainbat ataletan (“Baliabide informatikoen erabilerari buruzko gidalerro orokorrak”, “Berrikuspen eta kontrol ahalmena”, “Datu pertsonalen babesa eta konfidentziasuna”), konexioei buruzko konfidentziasunari buruzko aurreikuspenak barne. • “Segurtasun gorabeheren kudeaketa eta komunikazioa” atala gehitu da. • “Informazioaren tratamendua” atala gehitu da. • Iruzkinak gehitu zaizkie sistemen arteko konexio eta betetze klausulei “erakunde hornitzaileak eskuratutako baliabideak” atalean. • "Baliabide informatikoen erabilerari buruzko gidalerro orokorrak" atalean, kanpoko erabiltzaileak emandako kredentzialak onartzeari eta behar bezala betetzeari egiten zaio erreferentzia. • "Ekipo informatikoen erabilera (Hardware)" atalean, USBa edo memoria erauzgarriak erabiltzeko debekua gehitu da, eguneroko eragiketaren beharrek justifikatutako kasuetan izan ezik. • "Sare korporatiborako sarbidea" atalean, erabilitako pasahitzak bete beharko dituen ezaugarriak gehitu dira, bai eta lehen saio hasierako pasahitz aldaketaren zehaztapena ere.
08	2023-01-02	<ul style="list-style-type: none"> • 12.5 atalean eta hurrengoetan, bideokonferentziak grabatzean hornitzaileek duten irudiaren tratamenduari buruzko informazio-klausula sartu da.